

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO (EHU) BATZORDE ESTATUTARIOEN
ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDURAKO ARAUTEGIA (GRADUKO
BATZORDEA, GRADUONDOKO BATZORDEA, DOKTOREGO BATZORDEA,
IKERKETA, GARAPEN ETA BERRIKUNTZA BATZORDEA, EUSKARA
BATZORDEA ETA IRAKASLEEN BATZORDEA)**

ZIOEN AZALPENA	5
I. TITULUA.....	6
XEDAPEN OROKORRAK.....	6
I. kapitulua.....	6
Xedea	6
1. artikulua.- Arautegiaren xedea	6
2. artikulua.- Funtzionamendu araubidea.....	6
II. kapitulua.....	6
Batzorde estatutarioen estatutua eta kideak hautatzeko prozedura.....	6
3. artikulua.- Batzorde estatutarioetako kideen betekizunak.....	6
4. artikulua.- Batzorde estatutarioetako kideen agintaldia eta kargu uztea.....	7
5. artikulua.- Behin-behineko eta behin betiko ordezkapenak.....	7
6. artikulua.- Irakasle-ikertzaileen ordezkariak hautatzeko prozesuko Hauteskunde Batzordea.....	7
7. artikulua.- Irakasle-ikertzaileen ordezkariak hautatzeko prozedurari hasiera ematea.....	8
8. artikulua.- Irakasle-ikertzaileen ordezkariak hautatzeko prozeduraren nondik norakoak.....	8
9. artikulua.- Hauteskunde mahaiak.....	9
10. artikulua.- Botoa aldez aurretik ematea	9
11. artikulua.- Irakasle-ikertzaileak hautatzeko prozesuaren amaiera.....	9
12. artikulua.- Errektoreak irakasle-ikertzaileen ordezkariak hautatzea.....	10
13. artikulua.- Irakasle-ikertzaileak hautatzeko prozedura.....	10

14. artikulua.- Teknikarien eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkariak hautatzeko prozedura	11
15. artikulua.- Ordezkaritza orekatua	11
16. artikulua.- Batzordeetan hutsik geratutako postuak betetzea.....	11
17. artikulua.- Funtzionamendurako araubidea	12
18. artikulua.- Bilerak eta deialdiak.....	12
19. artikulua.- Batzordea eratzea eta erabakiak hartzea	12
20. artikulua.- Aktak.....	12
21. artikulua.- Azpibatzerdeak	13
II. TITULUA.....	14
BATZORDE ESTATUTARIOAK.....	14
I. kapitula.....	14
Graduko Batzordea.....	14
22. artikulua.- Definizioa eta atxikipena	14
23. artikulua.- Eskumenak.....	14
24. artikulua.- Osaera	15
25. artikulua.- Irakasle-ikertzaileen betekizunak.....	16
26. artikulua.- Ikasleen betekizunak.....	16
II. kapitula.....	16
Graduondoko Batzordea.....	16
27. artikulua.- Definizioa eta atxikipena	16
28. artikulua.- Eskumenak.....	17
29. artikulua.- Osaera	18
30. artikulua.- Irakasle-ikertzaileen betekizunak.....	18
31. artikulua.- Ikasleen betekizunak.....	19
III. kapitula.....	19
Doktorego Batzordea	19
32. artikulua.- Definizioa eta atxikipena	19

33. artikulua.- Eskumenak.....	20
34. artikulua.- Osaera	20
35. artikulua.- Irakasle-ikertzaileen ordezkarien betekizunak.....	21
36. artikulua.- Ikasleen betekizunak.....	21
IV. kapitulua.....	21
Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordea	21
37. artikulua.- Definizioa eta atxikipena	21
38. artikulua.- Eskumenak.....	21
39. artikulua.- Osaera	22
40. artikulua.- Irakasle-ikertzaileen ordezkarien betekizunak.....	23
V. kapitulua.....	24
Euskara Batzordea.....	24
41. artikulua.- Definizioa eta atxikipena	24
42. artikulua.- Eskumenak.....	24
43. artikulua.- Osaera	25
44. artikulua.- Irakasle-ikertzaileen ordezkarien betekizunak.....	25
45. artikulua.- Ikasleen ordezkarien betekizunak.....	26
46. artikulua.- EHUko teknikarien eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileen betekizunak.....	26
VI. kapitulua.....	27
Irakasleen Batzordea.....	27
47. artikulua.- Definizioa eta atxikipena	27
48. artikulua.- Eskumenak.....	27
49. artikulua.- Osaera	28
50. artikulua.- Irakasle-ikertzaileen ordezkarien betekizunak.....	28
Lehenengo xedapen gehigarria.- Egungo batzorde estatutarioen osaera berritzea.....	29
Bigarren xedapen gehigarria.- Bitarteko elektronikoen erabilera	29



Hirugarren xedapen gehigarria.- Kredituak aitortzea batzorde estatutarioetan parte hartzeagatik	29
Xedapen indargabetzailea.-	29
Azken xedapenetako lehenengoa.- Arautegia indarrean jartzea	29
ERANSKINA.....	30
JAKINTZA ADARRAK.....	30



EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO (EHU) BATZORDE ESTATUTARIOEN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDURAKO ARAUTEGIA (GRADUKO BATZORDEA, GRADUONDOKO BATZORDEA, DOKTOREGO BATZORDEA, IKERKETA, GARAPEN ETA BERRIKUNTZA BATZORDEA, EUSKARA BATZORDEA ETA IRAKASLEEN BATZORDEA)

ZIOEN AZALPENEA

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Estatutuek (Unibertsitate Sistemari buruzko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoari jarraituz onartuek) aldaketa garrantzitsuak ekarri dituzte antolakuntza akademikoan eta kide anitzeko organoen funtzionamendu arauetan, indartuz ondorengo printzipioak: unibertsitate autonomia, ordezkaritza demokratikoa, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko benetako berdintasuna, erakundearen gardentasuna eta unibertsitateko sektore guztien parte hartzea.

Estatutuetako azken xedapenetako bigarrenari jarraituz, nahitaezkoa da unibertsitateko araudiak Estatutu eta lege berrietara egokitzea, eta, beraz, aztertu eta eguneratu egin behar dira xedapen horretan zehaztutako batzordeen arautegiak, batzorde horiek izanik: Gradu Batzordea, Graduondoko Batzorde, Doktorego Batzordea, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordea, Euskara Batzordea eta Irakasleen Batzordea (arautegi honetan Batzorde Estatutario deituko diegu)

Arautegi honen xedea da batzorde estatutario guztien osaera, eskumenak eta funtzionamendua modu bateratuan arautzea, horien araubide juridikoa egokituz EHuko Estatutuetara, Unibertsitate Sistemari buruzko Lege Organikora, arlo publikoko araubide juridikoari buruzko oinarritzko legedira eta horien garatzeko unibertsitate arloko araudira.

Bestalde, arautegi hau osatzerakoan kontuan izan dira printzipio hauek: gizonezkoen eta emakumezkoen ordezkaritza parekatua, bai eta campusena ere, ikasleen parte hartze efektiboa, arauen sinplifikazioa eta unibertsitateko Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorrearekiko koherentzia.



I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

I. kapitulua

Xedea

1. artikulua.- Arautegiaren xedea

1. Arautegi honen xedea da batzorde hauen antolamendua eta funtzionamendua arautzea: Graduako Batzordea, Graduondoko Batzordea, Doktorego Batzordea, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordea, Euskara Batzordea eta Irakasleen Batzordea.

2. Besterik adierazi ezean, batzorde estatutarioak aipatzean, artikulua honetako lehen apartatua adieraziko batzordeei egiten zaie aipamena.

2. artikulua.- Funtzionamendu araubidea

Arautegi honetan batzorde estatutario guztietarako funtzionamendu araubidea zehazten da.

II. kapitulua.

Batzorde estatutarioen estatutua eta kideak hautatzeko prozedura

1. atala

Batzordeetako kideei buruzko estatutua

3. artikulua.- Batzorde estatutarioetako kideen betekizunak

Batzorde estatutarioetako kideek arautegi honetan talde bakoitzerako zehaztutako betekizunak bete beharko dituzte hautagaitza aurkezteko egunean.

4. artikulua.- Batzorde estatutarioetako kideen agintaldia eta kargu uztea

1. Batzorde estatutarioetako kideen agintaldia ondoren zehaztutakoa izango da, eta gehienez ere ondoz ondoko bi agintaldi egin ahal izango dituzte:

- a. Irakasle-ikertzaileek: lau urte.
- b. Ikasleen ordezkariak: bi urte.
- c. Teknikariak eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuakoko langileak: lau urte.

2. Hauek izango dira batzordeko kide izateari uzteko arrazoiak:

- a. Agintaldia amaitzea.
- b. Uko egitea.
- c. Betekizunak betetzeari uztea.
- d. Ezgaitze legala.
- e. Heriotza.
- f. Agintaldi berean, segidako hiru bileretara edo tartekako sei bileretara ez joatea justifikaziorik gabe, kontuan hartuta Ikasleen Arautegian ikasleentzat zehaztutakoa.
- g. Errebokatzea izendapenerako eskumena daukan organoak.

5. artikulua.- Behin-behineko eta behin betiko ordezkariak

Banakako hautagaitzetako ordezkariak titularren ordezkari izan daitezke titularra ez dagoenean, kanpoan edo gaixorik dagoenean edo, oro har, behar bezala egiaztatutako egoeraren bat gertatzen denean. Horrelako egoeraren batean dagoen titularrak horren berri eman beharko dio, idatziz, kasuan kasuko batzordeko buruari.

2. atala

Batzorde estatutarioetako kideak hautatzeko prozedura

6. artikulua.- Irakasle-ikertzaileen ordezkariak hautatzeko prozesuko Hauteskunde Batzordea

1. Hautaketa prozesurako, kasuan kasuko Hauteskunde Batzordea eratuko da, eta hauek izango dira kideak: kasuan kasuko batzorde estatutarioko burua (bera izango da Hauteskunde Batzordeko burua); idazkari nagusia (bera izango da Hauteskunde Batzordeko idazkaria); eta hautesle guztien artetik zozketaz aukeratutako kide bat.

2. Hauek izango dira batzordearen eginkizunak: hauteskunde prozesua gainbegiratzea, egon daitezkeen hutsuneak betetzea, arautegi hau eta arautegi aplikagarriak interpretatzea eta jar litezkeen erreklamazioak ebaztea.

7. artikulua.- Irakasle-ikertzaileen ordezkariak hautatzeko prozedurari hasiera ematea
1. Idazkari nagusiak behar besteko denboraz egingo du hauteskunde prozesuari hasiera emateko deia, horren bidez artikulua honetan aipatutako batzorde estatutarioetako kideak hautatzeko. Deialdia argitaratu egingo da, eta honakoak zehaztuko dira bertan:

- a. Hautesle errolda ixteko eguna.
- b. Behin-behineko errolda argitaratzeko eguna.
- c. Behin-behineko errolda inpugnatzeko epea.
- d. Behin betiko errolda argitaratzeko eguna.
- e. Hautagarriek hautagai izateko guraria adierazteko daukaten epea.
- f. Hautagai izateko guraria adierazi dutenek Hauteskunde Batzordeko buruari beren hautagaitza aurkezteko daukaten epea.
- g. Behin-behineko hautagaiak aldarrikatzeko eguna.
- h. Hautagaien kontra egiteko edo akatsak zuzentzeko epea.
- i. Behin betiko hautagaiak aldarrikatzeko eguna.
- j. Bozketa eguna eta tokia.
- k. Behin-behineko emaitzak aldarrikatzeko eguna.
- l. Emaitzen kontra egiteko epea.
- m. Behin betiko emaitzak aldarrikatzeko eguna.

2. Hauteskunde Batzordeko buruak emango ditu argitara hauteskundeko erroldak, hautagaiak eta emaitzak.

8. artikulua.- Irakasle-ikertzaileen ordezkariak hautatzeko prozeduraren nondik norakoak

1. Hautesle errolda jakintza adarren arabera osatuko da, oinarri hartuta EHUko irakasle-ikertzaile bakoitzari atxikipenez dagokiona.

Arautegi honen ondorioetarako, jakintza adarrak eranskinean jasotakoak izango dira.

2. Batzorde estatutario bakoitzerako arautegi honetan zehaztutako betekizunak betetzen dituzten unibertsitate honetako irakasle-ikertzaileek idatzia bidaliko diote

Hauteskunde Batzordeko buruari adieraziz hauteskunde prozesuan hautagai izan nahi dutela eta zehaztuta jakintzaren zein adarretakoak diren. Idatzia hauteskunde egutegian hautagai izateko guraria adierazteko zehaztu den epearen barruan bidali beharko dute.

3. Hauteskunde Batzordeko buruak, hiru eguneko epean, jakintza adar bakoitzean hautagai izateko guraria adierazi dutenen zerrenda igorriko die interesa duten guztiei, horren arabera banakako hautagaitza (eta nahi izanez gero ordezkoko eta guzti) aurkez dezaten horretarako ezarritako epearen barruan.

4. Hautagaitza aurkezteko epea behin amaituta, Hauteskunde Batzordeak egiaztatu egingo du hautagaiek baldintza guztiak betetzen dituztela, eta batzordeko buruak argitara emango ditu jakintza adar bakoitzerako aurkeztu diren hautagaitzak (ordezkoekin edo ordezkorik gabe).

5. Bozketaren egunean, hautesleek beren jakintza adarreko hautagaitza bakar bati emango diote botoa.

9. artikulua.- Hauteskunde mahaiak

Hauteskunde egunean, Hauteskunde Batzordeak behar beste hauteskunde mahai eratuko ditu bozketa behar bezala gauzatze aldera. Hauteskunde mahaietako buruak campuseko idazkariak izendatuko ditu, eta bi mahaikide izango ditu jendaurrean egindako zozketa bidez aukeratuak hautagai ez diren campuseko hautesleen artetik.

10. artikulua.- Botoa aldeztu aurretik ematea

Botoa ematea errazte aldera, hautesleek aldeztu aurretik eman ahal izango dute botoa Hauteskunde Batzordeko buruaren aurrean edo hark bere ordeztu izendatuko duen pertsonaren aurrean. Hori guztia Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorrean zehaztutakoari jarraikiz.

11. artikulua.- Irakasle-ikertzaileak hautatzeko prozesuaren amaiera

1. Errektoreak kasuan kasuko Batzorde Estatutarioko kide izendatuko ditu jakintza adar bakoitzean boto gehien lortu dituzten hautagai zerrendetako titularrak.

Berdinketarik egonez gero, Hauteskunde Batzordeak zozketa egingo du berdinketa ebazteko.

2. Edozelan ere, proposatutako pertsonak ezin izango dira sail berekoak izan. Zerrendako lehenengo hiruren artean sail berera atxikitakoak badaude, kide izateko proposatuko dira lehenengoa eta sail berekoa ez den hurrengoa.

12. artikulua.- Errektoreak irakasle-ikertzaileen ordezkariak hautatzea

1. Hauteskunde bidez hautatzen ez diren irakasle-ikertzaileen ordezkariak eta ordezkioak errektoreak hautatu eta izendatuko ditu arautegi honetan batzorde estatutario bakoitzerako zehaztutako osaeraren arabera, kontuan izanda batzordeko kide izateko baldintzak bete behar dituztela eta arautegi honetako 5. artikuluan zehaztutakoari jarraikiz.

2. Errektoreak bere eskumenen babesean egindako izendapenen berri emango dio Gobernu Kontseiluari.

3. Errektoreak, bere proposamenean, EHUko campusen arteko oreka bultzatuko du.

13. artikulua.- Ikasleen ordezkariak hautatzeko prozedura

1. Ikasleen ordezkariak hautatzeko, hautagai zerrenda aurkeztu beharko zaio Klaustroko Mahaiari; epea hauteskundeak egingo diren Klaustroko bilerako zehaztapenetan adierazitakoa izango da. Hautagai zerrendetan titularrak eta ordezkioak zehaztu beharko dira.

2. Graduoko Batzorderako, Graduondoko Batzorderako eta Doktorego Batzorderako ikasleen ordezkariak Ikasle Kontseiluaren osoko bilkuran aukeratuko dira Ikasleen Arautegiari jarraikiz eta campusen arteko oreka bermatuta.

3. Euskara Batzorderako hautesleak izango dira Unibertsitateko Klaustroan ikasleek dituzten ordezkariak.

4. Errektoreak, edo eskumenak eskuordetuta dituen errektoreordetzako arduradunak, ikasleen ordezkari izendatuko ditu boto gehien lortu dituzten hautagaiak.

5. Berdinketarik egonez gero, Klaustroko Mahaiak zozketa egingo du berdinketa ebazteko.

14. artikulua.- Teknikarien eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkariak hautatzeko prozedura

1. Teknikarien eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkariak hautatzeko, hautagai zerrenda aurkeztu beharko zaio Klaustroko Mahaia; epea hauteskundeak egingo diren Klaustroko bilerako zehaztapenetan adierazitakoa izango da.

2. Hautagai zerrendak campusaren arabera osatu eta aurkeztuko dira.

3. Unibertsitateko Klaustroan teknikariak eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileak dituzten ordezkariak baino ez dira izango hautesle.

4. Hautesleak kasuan kasuko campuserako aurkeztutako hautagaitzei baino ezin izango diete eman botoa.

5. Berdinketarik egonez gero, Klaustroko Mahaia zozketa egingo du berdinketa ebazteko.

6. Errektoreak teknikarien eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari izendatuko ditu boto gehien lortu dituzten hautagaiak.

15. artikulua.- Ordezkaritza orekatua

Batzorde estatutarioen osaeran bermatuta egon beharko da emakumezkoen eta gizonezkoen kopuruak orekatuak direla, eta Estatutueto 153.1 artikuluan eta EHUko Hauteskunde berruzko Arautegi Orokorren zehaztutakoa bete beharko da.

16. artikulua.- Batzordeetan hutsik geratutako postuak betetzea.

1. Kargua utzi delako postuak bete behar izanez gero, hautetsien zerrendako ordezkaria izendatuko da batzordeko kidea; ordezkari ez badago, kasuan kasuko zerrendan boto gehien lortu dituen hautagaia izendatuko da.

2. Izendatutako kidea karguan egongo da titular izandakoaren agintaldia amaitu arte.

2. atala

Batzorde estatutarioen funtzionamendua

17. artikulua.- Funtzionamendurako araubidea

1. Batzorde estatutarioek eginkizunak beteko dituzte hauei jarraikiz: EHUko Estatutuei, Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoari, administrazio orokorreko legediari eta aplikagarria den unibertsitate arloko arautegiei.
2. Batzorde estatutarioek funtzionamendurako barne arauak zehaztu ahal izango dituzte bat etorrita arautegi honekin eta aplikagarria den gainontzeko antolamendu juridikoarekin, eta horrela eginez gero, jendaurrean jarri beharko dituzte.
3. Arautegi honetan eta batzordeen funtzionamendurako barne arauetan (halakorik egonez gero) zehaztuta ez dauden gaietan, sektore publikoko araubide juridikoa arautzen duen legedia aplikatuko da.

18. artikulua.- Bilerak eta deialdiak

1. Batzordeek gutxien dela hiru ohiko bilera egingo dituzte ikasturte bakoitzean, eta ez-ohiko bilera, batzorde buruak hala erabakitzen duenean edo batzordeko kideen laurden batek hala eskatzen duenean.
2. Bilerarako deia bilera baino gutxien dela 48 ordu lehenago bidali beharko da, behar bezala arrazoitutako premiazko egoeretan izan ezik.
3. Bilerak presentzialak, mistoak edo telematikoak izan daitezke.

19. artikulua.- Batzordea eratzea eta erabakiak hartzea

1. Batzordea balioz eratzeko bertan egon behar dira burua eta idazkaria, edo horien legezko ordezkioak, eta batzordeko kideen erdiak.
2. Erabakiak hartzeko bertaratutakoen gehiengo soila beharko da, arauren batek bestelako gehiengorik adierazi ezean.
3. Berdinketa dagoenean, batzordeko buruaren botoak erabakiko du.

20. artikulua.- Aktak

1. Idazkariak bilera bakoitzaren akta egingo du.



2. Aktan jasota ageri behar dira: bertaratutakoen zerrenda, aztergaien zerrenda, tokia eta ordua, hartutako erabakiak eta boto partikularrak, halakorik egonez gero.

3. Aktak bileran bertan edo hurrengo bileran onartu ahal izango dira.

21. artikulua.- Azpibatzerdeak

1. Batzerdeek azpibatzerde teknikoak eratu ahal izango dituzte egoki iritziz gero: osaera zehaztuko dute eta iraungo du azpibatzerdea eratzeko oinarri izan ziren helburuak bete arte.

2. Edozelan ere, azpibatzerdearen osaeran batzerdean sektoreek daukaten proportzio bera gorde beharko da.

II. TITULUA

BATZORDE ESTATUTARIOAK

I. kapitulua

Graduko Batzordea

1. atala

Izaera eta eginkizunak

22. artikulua.- Definizioa eta atxikipena

1. Graduko Batzordea kide anitzeko organoa da, helburu duena graduko ikasketa ofizialen arloan aholku ematea, kontsultarako aukera eskaintzea, proposamenak egitea eta erabakiak hartzea.

2. Graduko Batzordea unibertsitateko Gobernu Kontseiluari atxikita dago eta autonomia funtzionalez jardungo du bere eskumenen arloan.

23. artikulua.- Eskumenak

Hauek dira Graduko Batzordearen eskumenak:

- a. Errektoreari eta Gobernu Kontseiluari aholku ematea graduko ikasketa ofizialen arloan.
- b. Graduko ikasketen helburuak onartzeko proposamena egitea Gobernu Kontseiluari, bai eta ikasketa horien akademia antolakuntza eta kudeaketarako arautegien proposamena onartzekoa ere.
- c. Graduko ikasketen harmonizazioa zaintzea.
- d. Graduko titulu ofizialak sortu, aldatu, ezarri, atxiki, eten edo kentzeko proposamenen inguruko txostena egitea.
- e. Graduko titulu ofizialetako ikasketen garapena ebaluatzea, bai eta unibertsitateko graduko ikasketen kalitateari buruzko urteko txostena egitea ere.
- f. Ikasketa hauek ematen dituzten ikastegietako kalitate batzordeek beren lana zuzentasunez egiten dutela ziurtatzea.

- g. Graduako ikasketen arloko hezkuntza berrikuntzarako programen inguruko txostena egitea.
- h. Graduako ikasketetako plaza kopuruen proposamena aurkeztea urtero Gobernu Kontseiluari, bai eta ikasleak graduako ikasketa ofizialetan sartu eta onartuak izateko irizpideak ere, kasuan kasuko campuseko batzarra entzun ondoren.
- i. Ikastegiak eta sailak sortu, aldatu eta kentzeko proposamenen inguruko txostena egitea eta Gobernu Kontseiluari aurkeztea, kasuan kasuko campuseko batzarra entzun ondoren.
- j. Graduako sari bereziak onartzea, ikastegien proposamenei jarraikiz.
- k. Irakaskuntza kalitatea, berrikuntza metodologikoa eta koordinazio akademikoa hobetzeko neurriak proposatzea.
- l. Graduako ikasketa ofizialekin zerikusia daukaten gaien inguruko txostenak eta proposamenak egitea, Gobernu Kontseiluak edo errektoreak hala eskatzen dionean.
- m. Nortasun juridikorik gabeko egitura eta erakundeak sortu, aldatu eta kentzeari buruzko txostenak egitea, egitura eta erakunde horiek irakaskuntza jarduerak egiten dituztenean.
- n. Araudi espezifikoak duten hitzarmenak onartzea, bere eskumenen esparruan.
- o. Estatutuek eta unibertsitateko araudiak esleitutako gainerako eskumen guztiak, bai eta unibertsitateko organo eskudunek eskuordetutakoak ere.

2. atala

Batzordearen osaera eta kideen betekizunak

24. artikulua.- Osaera

1. Graduako Batzardea honako hauek osatuko dute:

- a. Errektorea, edo, eskuordetzaz, graduako ikasketen arloan eskumenak dituen errektoreordea. Bera izango da batzardeko burua.
- b. Hamabost irakasle-ikertzaile iraunkor, jakintza adar bakoitzeko hiru.
- c. EHUko graduako ikasketa ofizialetan matrikulatutako bost ikasle, jakintza adar bakoitzeko bat.
- d. Gestio Akademikoaren Zerbitzuko burua (titularra), idazkari teknikoa izango dena; hitza izango du, baina botorik ez.

2. Irakasle-ikertzaile iraunkorren hamabost ordezkarietatik, bost errektoreak izendatuko ditu eta beste hamarrek hautatuak izango dira, arautegi honetan ezarritako prozedurari jarraikiz.

3. Graduoko Batzordean ikasleek beren eginkizunak egokiro bete ditzaten, ordezkari titularrek zein ordezkoek hartu ahal izango dute parte.

25. artikulua.- Irakasle-ikertzaileen betekizunak

1. Batzordeko kide izan ahalko dira EHUn zerbitzu aktiboan dauden irakasle-ikertzaile iraunkorrak, irakaskuntzaren arloan gutxien dela hamar urteko esperientzia badute eta graduoko ikasketa ofizialen kudeaketan esperientzia egiaztatua.

3. Ikasketa ofizialean kudeaketan esperientzia nahikoa aitortuko zaie kargu hauetan dauden edo egon diren pertsonei: ikastegietako dekanok eta zuzendariak, sailetako zuzendariak, sailetako idazkariak, ikastegietako dekanorde eta zuzendariordeak, ikastegietako idazkari akademikoak, tituluetak koordinatzaileak eta AADBko edo Akademia Antolakuntzako aurreko batzordeko kide izan direnak. Era berean, gestio akademikoaren arloan karguak bete dituzten pertsonei esperientzia aitortuko zaie.

4. Gutxienez bi bosturteko edo horren baliokidea egiaztatzen dutenei esperientzia nahikoa aitortuko zaie irakaskuntzan.

26. artikulua.- Ikasleen betekizunak

Ikasleen ordezkariak izango dira EHUKo graduoko ikasketetan matrikulatuko ikasleak.

II. kapitulua.

Graduondoko Batzordea

1. atala

Izaera eta eginkizunak

27. artikulua.- Definizioa eta atxikipena

1. Graduondoko Batzordea kide anitzeko organoa da, helburu duena unibertsitate master titulu ofizialak eta berezko tituluak lortzera bideratutako ikasketen arloan

aholku ematea, kontsultarako aukera eskaintzea, proposamenak egitea eta erabakiak hartzea.

2. Graduondoko Batzordea unibertsitateko Gobernu Kontseiluari atxikita dago eta autonomia funtzionalez jardungo du bere eskumenen arloan.

28. artikulua.- Eskumenak

Hauek dira Graduondoko Batzordearen eskumenak:

- a. Errektoreari eta Gobernu Kontseiluari aholku ematea.
- b. Unibertsitate master titulu ofizialak eta berezko tituluak lortzera bideratutako ikasketen helburuak onartzeko proposamena egitea Gobernu Kontseiluari, plangintza estrategiko orokorraren barruan, bai eta ikasketa horien akademia antolakuntza eta kudeaketarako arautegien proposamena onartzekoa ere.
- c. Graduondoko ikasketen harmonizazioa zaintzea.
- d. Ikasketa hauek ematen dituzten ikastegietako kalitate batzordeek beren lana zuzentasunez egiten dutela ziurtatzea.
- e. Unibertsitateko master tituluak lortzera bideratutako ikasketen garapena ebaluatzea, baita berezko ikasketena ere, eta horien guztien kalitatea zaintzea.
- f. Artikulu honetan aipatzen diren ikasketak sortu edo aldatzeko proposamenen inguruko txostena egitea.
- g. Hezkuntza berrikuntzarako programen inguruko txostena egitea.
- h. Batzordearen eskumeneko ikasketen kalitatearekin zerikusia daukaten hezkuntza programen katalogoari buruzko txostena egitea.
- i. Ikastegiak eta sailak sortu, aldatu eta kentzeko proposamenen inguruko txostena egitea eta Gobernu Kontseiluari aurkeztea, kasuan kasuko campuseko batzarra entzun ondoren.
- j. Graduondoko ikasketa ofizialekin zerikusia daukaten gaien inguruko txostenak eta proposamenak egitea, Gobernu Kontseiluak edo errektoreak hala eskatzen dionean.
- k. Unibertsitate masterretako plaza kopuruen proposamena aurkeztea urtero Gobernu Kontseiluari, kasuan kasuko campuseko batzarra entzun ondoren.
- l. Berezko ikasketei dagozkien proposamen berriak eta aurrekoen luzapenak aurkeztea urtero Gobernu Kontseiluari.
- m. Nortasun juridikorik gabeko egitura eta erakundeak sortu, aldatu eta kentzeari buruzko txostenak egitea, egitura eta erakunde horiek irakaskuntza jarduerak egiten dituztenean.

- n. Graduondoko tituluen luzapena onartzea.
- o. Araudi espezifikoaren duten hitzarmenak onartzea, bere eskumenen esparruan.
- p. Estatutuek, horiek garatzeko arauak eta indarreko legediak esleitutako gainerako eskumen guztiak, bai eta unibertsitateko gobernu organoek eskuordetutakoak ere.

2. atala

Batzordearen osaera eta kideen betekizunak

29. artikulua.- Osaera

1. Graduondoko Batzordea honako hauek osatuko dute:

- a. Errektorea edo, eskuordetzaz, graduiko ikasketen arloan eskumenak dituen errektoreordea. Bera izango da batzordeko burua.
- b. Hamabost irakasle-ikertzaile iraunkor, jakintza adar bakoitzeko hiru.
- c. Unibertsitate masterretako eta/edo berezko ikasketetako bost ikasle, jakintza adar bakoitzeko bat. Arautegi honetan ezarritako prozeduraren arabera, hiru ordezkari unibertsitateko masterretakoak izango dira.
- d. Graduondoko Ikasketen zerbitzuko burua, idazkari teknikoa izango dena; hitza izango du, baina botorik ez. Kargua utziz gero edo gaixorik edo kanpoan egonez gero, Gestio Akademikoaren Zerbitzuko burua izango da haren ordezkaria.

2. Irakasle-ikertzaile iraunkorren hamabost ordezkarietatik, bost errektoreak izendatuko ditu eta beste hamarrek hautatuak izango dira, arautegi honetan ezarritako prozedurari jarraikiz.

3. Ikasleak hautatuko dira arautegi honetan ezarritako prozedurari jarraikiz.

30. artikulua.- Irakasle-ikertzaileen betekizunak

1. Batzordeko kide izan ahalko dira EHUn zerbitzu aktiboan dauden irakasle-ikertzaile iraunkorrak, irakaskuntzaren eta ikerketaren arloan gutxienez hamar urteko esperientzia badute eta unibertsitate masterren eta/edo berezko ikasketen kudeaketan esperientzia egiaztatuta

2. Unibertsitate masterren eta/edo berezko ikasketen kudeaketan esperientzia nahikoa aitortuko zaie kargu hauetan dauden edo egon diren pertsonen: ikastegietako dekanok eta zuzendariak, sailen zuzendariak, sailen idazkariak,

ikastegietako dekanorde eta zuzendariordeak, ikastegietako idazkari akademikoak, tituluetak koordinatzaileak eta AADBko edo Akademia Antolakuntzako aurreko batzordeko kide izan direnak. Era berean, kudeaketaren arloan karguak bete dituzten pertsonen esperientzia aitortuko zaie.

3. Gutxienez bi bosturteko edo horren baliokidea egiaztatzen dutenei esperientzia nahikoa aitortuko zaie irakaskuntzan.

4. Ikerketan esperientzia nahikoa aitortzeko, ikerketako seiurteko bat izan beharko da CNEAIk egiaztatua, edo Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziak egindako pareko ebaluazioren baten bidez lortua, edo Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziak edo pareko agentziaren batek emana; edo, bestela, gaitasunengatik edo arlo akademikoan izandako ibilbidearengatik komunitate zientifikoan itzal handia aitortua daukan curriculumak izan beharko da.

31. artikulua.- Ikasleen betekizunak

Ikasleen ordezkariak izango dira EHUko unibertsitate master titulu ofizialak eta/edo berezko tituluak lortzera bideratutako ikasketetan matrikulatuko ikasleak.

III. kapitulua

Doktorego Batzordea

1. atala

Izaera eta eginkizunak

32. artikulua.- Definizioa eta atxikipena

1. Doktorego Batzordea kide anitzeko organoa da, helburu duena doktoregoko ikasketa ofizialen arloan aholku ematea, kontsultarako aukera eskaintzea, proposamenak egitea eta erabakiak hartzea.

2. Doktorego Batzordea unibertsitateko Gobernu Kontseiluari atxikita dago eta autonomia funtzionalez jardungo du bere eskumenen arloan.

33. artikulua.- Eskumenak

Hauek dira Doktorego Batzordearen eskumenak:

- a. Errektoreari eta Gobernu Kontseiluari aholku ematea, bere eskumenen arloan.
- b. Gobernu Kontseiluari honako hauek aurkeztea, ontzat eman edo alda ditzan: doktoregoko ikasketak arautzeko arautegiaren eta ikasketa horien helburuen proposamena, plangintza estrategiko orokorraren arabera egina, eta haien akademia antolakuntzarako eta gestiorako arautegien proposamena.
- c. Doktoregoko tituluak lortzera bideratutako ikasketen garapena ebaluatzea eta haien kalitatea zaintzea.
- d. Doktoregoko ikasketak sortu, aldatu edo kentzeko proposamena egitea Gobernu Kontseiluari.
- e. Doktorego tesietako epaimahaiak onartzea, Doktorego Eskolaren edo doktorego eskolen proposamenei jarraikiz.
- f. Doktorego programetako plaza kopuruen proposamena aurkeztea urtero Gobernu Kontseiluari.
- g. Doktoregoko sari bereziak onartzea, Doktorego Eskolaren edo doktorego eskolen proposamenei jarraikiz.
- h. Estatutuek, horiek garatzeko arauak eta indarreko legediak esleitutako gainerako eskumen guztiak, bai eta unibertsitateko gobernu organoek eskuordetutakoak ere.

2. atala

Batzordearen osaera eta kideen betekizunak

34. artikulua.- Osaera

1. Doktorego Batzordeko kide izango dira honako hauek:

- a. Errektorea edo Doktorego Eskolako zuzendaria. Bera izango da batzordeko burua.
- b. Hamabost irakasle-ikertzaile iraunkor, jakintza adar bakoitzeko hiru.
- c. Doktoregoko bost ikasle, jakintza adar bakoitzeko bat.
- d. EHUko doktorego eskola bateko administrazio burua (titularra), idazkari teknikoa izango dena; hitza izango du, baina botorik ez.

2. Irakasle-ikertzaile iraunkorren hamabost ordezkarietatik, bost errektoreak izendatuko ditu eta beste hamarrek hautatuak izango dira, arautegi honetan ezarritako prozedurari jarraikiz. Aurkezten diren hautagaitzetan, doktorego

programa bateko zuzendaria izan beharko da hautagaitza burua. Errektoreak hautatutako kideen artean, bermatu egingo da Batzordearen osaera egokia, Estatutuetan eta unibertsitateko gainerako arauetan xedatutakoa betez.

35. artikulua.- Irakasle-ikertzaileen ordezkarien betekizunak

Batzordeko kide izan ahalko dira EHUn zerbitzu aktiboan dauden irakasle-ikertzaile iraunkorrak, doktorego programetan gutxien dela bost urteko esperientzia akademikoa badute eta gutxienez doktorego tesi bat zuzendu badute.

36. artikulua.- Ikasleen betekizunak

Doktorego programa batean matrikulatuta dauden ikasleak izango dira ikasleen ordezkariak.

IV. kapitulua

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordea

1. atala

Izaera eta eginkizunak

37. artikulua.- Definizioa eta atxikipena

1. Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordea kide anitzeko organoa da, helburu duena ikerketaren plangintza, koordinazio, sustapen, kontrol eta ebaluazioaren arloan aholku ematea, kontsultarako aukera eskaintzea eta proposamenak egitea.

2. Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordea unibertsitateko Gobernu Kontseiluari atxikita dago eta autonomia funtzionalez jardungo du bere eskumenen arloan.

38. artikulua.- Eskumenak

1. Hauek dira Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen eskumenak:

a. Errektoreari eta Gobernu Kontseiluari aholku ematea, bere eskumenen arloan.

- b. Urteko eta urte anitzerako ikerketa programazioa proposatzea Gobernu Kontseiluari, besteak beste, campusen ikuspegia eta haien ekimenak kontuan hartuta.
 - c. Aurrekontua banatzeko irizpideak eta proposamenak egitea, Gobernu Kontseiluak onartutako irizpide eta prozedurei kalterik egin gabe.
 - d. Ikerketaren finantzaketarako deialdien berri ematea. Deialdiak publikoak izango dira.
 - e. Unibertsitateko ikerlanen berri izateko eta horiek ebaluatzeako aukera emango duten azterlanak eskatu eta egitea.
 - f. Ikerketa lanen urteroko memoria egitea, taldeen, sailen eta unibertsitateko ikergune eta ikerketa institutuen memorieta oinarrituta.
 - g. Nortasun juridikorik gabeko egitura eta erakundeak sortu, aldatu eta kentzeari buruzko txostenak egitea, horien jarduerak ikerketara bideratuta daudenean.
 - h. Araudi espezifikoak duten hitzarmenak onartzea, bere eskumenen esparruan.
 - i. Estatutuek eta unibertsitateko araudiak esleitutako gainerako eskumen guztiak, bai eta unibertsitateko organo eskudunek eskuordetutakoak ere.
2. Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeko kideek ezingo dute hartu parte, inolaz ere, zuzenean eragiten dieten gaitan, eta ezin izango dute eskuratu ez erabili gai horiei buruzko informaziorik, gainerako ikertzaileen eskura ere egongo dena ez bada.

2. atala

Batzordearen osaera eta kideen betekizunak

39. artikulua.- Osaera

1. Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza Batzordeko kide izango dira honako hauek:

- a. Errektorea edo, eskuordetzaz, ikerketa arloan eskumenak dituen errektoreordea. Bera izango da batzordeko burua.
- b. Hamabost irakasle-ikertzaile iraunkor, jakintza adar bakoitzeko hiru.
- c. Ikerketaren gestioan eskumena duen zerbitzuko burua (titularra), idazkari teknikoa izango dena; hitza izango du, baina botorik ez.

2. Irakasle-ikertzaile iraunkorren hamabost ordezkarietatik, bost errektoreak izendatuko ditu eta beste hamarrek hautatuak izango dira, arautegi honetan ezarritako prozedurari jarraikiz.

40. artikulua.- Irakasle-ikertzaileen ordezkarien betekizunak

1. Batzordeko kide izan ahalko dira EHUn zerbitzu aktiboan dauden irakasle-ikertzaile iraunkorrek, unibertsitateko irakaskuntzan eta ikerketan gutxien dela hamar urteko esperientzia badute.

2. Beraz, pertsona bakoitzak irakaskuntzan eta ikerketan egindako lana hartuko da kontuan esperientzia neurtzeko.

3. Esperientzia nahikoa aitortuko zaie gutxienez bi bosturteko edo horren baliokidea egiaztatzen dutenei.

4. Ikerketan esperientzia nahikoa aitortzeko, ikerketako seiurteko bat izan beharko da, azken sei urteetan lortutakoa, edo hiru ikerketa tarte aitortu, denak CNEAIk egiaztatuak, edo Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziak egindako pareko ebaluazioren baten bidez lortuak, edo Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziak edo pareko agentziaren batek emanak; edo, bestela, gaitasunengatik edo arlo akademikoan izandako ibilbidearengatik komunitate zientifikoan itzal handia aitortua daukan curriculumak izan beharko da.

V. kapitulua

Euskara Batzordea

1. atala

Izaera eta eginkizunak

41. artikulua.- Definizioa eta atxikipena

1. Euskara Batzordea kide anitzeko organoa da, helburu duena EHUn euskararen plangintza, koordinazio, sustapen, kontrol eta ebaluazioaren arloan aholku ematea, kontsultarako aukera eskaintzea eta proposamenak egitea.
2. Euskara Batzordea unibertsitateko Gobernu Kontseiluari atxikita dago eta autonomia funtzionaleraz jardungo du bere eskumenen arloan.

42. artikulua.- Eskumenak

Hauek dira Euskara Batzordearen eskumenak:

- a. Errektoreari eta Gobernu Kontseiluari aholku ematea, bere eskumenen arloan.
- b. Hizkuntza plangintza proposatzea Gobernu Kontseiluari, ontzat eman dezan.
- c. Campus guztietako administrazio ataletan eta ikastegietan euskararen erabilerarako eta normalizaziorako neurri egokiak proposatzea, eta hizkuntza plangintzan eta euskara planetan proposatutako helburuak betetzeko behar diren giza baliabide eta baliabide materialen berri ematea.
- d. Unibertsitateko gobernu organoei aholku ematea unibertsitateko hizkuntza politikari buruzko gaietan.
- e. Urtero ebaluatzea hizkuntza normalizazioko neurriak eta adierazleak.
- f. Gobernu Kontseiluari proposatzea, onar dezan, EHUn euskaraz irakasteko gaitasun agiria eskuratzeko arautegia.
- g. Estatutuek, horiek garatzeko arauak eta indarreko legediak esleitutako gainerako eskumen guztiak, bai eta unibertsitateko gobernu organoek eskuordetutakoak ere.

2. atala

Batzordearen osaera eta kideen betekizunak

43. artikulua.- Osaera

1. Euskara Batzordeko kide izango dira honako hauek:

- a. Euskara arloan eskumena duen errektoreordea. Bera izango da batzordeko burua.
- b. Hamar irakasle-ikertzaile iraunkor, jakintza adar bakoitzeko bi.
- c. Beste hiru irakasle-ikertzaile iraunkor, EHUn campus bakoitzeko bat.
- d. Bost ikasle; horietako hiru campus bakoitzeko ordezkari bana izango dira, bozka bidez hautatuak, eta gainerako biak Ikasleen Kontseiluak aukeratuko ditu.
- e. Teknikarien eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileen hiru ordezkari, EHUn campus bakoitzeko bat.
- f. Euskararen gestioan eskumena duen zerbitzuko burua (titularra), idazkari teknikoa izango dena; hitza izango du, baina botorik ez.

2. Irakasle-ikertzaile iraunkorren hamar ordezkarietatik, bost errektoreak izendatuko ditu eta beste bostak hautatuak izango dira, arautegi honetan ezarritako prozedurari jarraikiz.

3. Campus bakoitzeko irakasle-ikertzaileen ordezkariak kasuan kasuko campuseko errektoreordeak aukeratuko ditu.

4. Ikasleen ordezkariak araudi honetan ezarritako prozedurari jarraikiz hautatuko dira.

5. Teknikarien eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkariak araudi honetan ezarritako prozedurari jarraikiz hautatuko dira.

44. artikulua.- Irakasle-ikertzaileen ordezkarien betekizunak

1. Euskara Batzordeko kide izan ahalko dira EHUn zerbitzu aktiboan dauden irakasle-ikertzaile iraunkorrak, unibertsitateko irakaskuntzan eta ikerketan gutxien dela hamar urteko esperientzia badute.

Horrez gain, plaza elebiduna betetzen egon beharko dira, edo EHUn Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiria Eskuratzeko Arautegian jasota dagoen titulua izan behar dute.

2. Beraz, pertsona bakoitzak irakaskuntzan eta ikerketan egindako lana hartuko da kontuan esperientzia neurtzeko.

3. Esperientzia nahikoa aitortuko zaie gutxienez bi bosturteko edo horren baliokidea egiaztatzen dutenei.

4. Ikerketako esperientzia egiaztatzeko, ikerketako curriculumak aurkeztu beharko da.

45. artikulua.- Ikasleen ordezkarien betekizunak

EHUn matrikulatuta dauden ikasleak izango dira ikasleen ordezkariak, ikasketak eredu elebidunean egiten ari direnak edo, bestela, EHUn Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiria Eskuratzeko Arautegian jasota dagoen titulua daukatenak.

46. artikulua.- EHUKo teknikarien eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileen betekizunak

Teknikarien eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkariak kolektibo horretakoak izan beharko dira eta EHUn eman behar dituzte zerbitzuak, gutxienez 3. euskara eskakizuna daukan plaza batean; hortaz, eskakizun hori edo baliokide bat egiaztatua izan behar dute edo, bestela, EHUn Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiria Eskuratzeko Arautegian jasota dagoen titulua.

VI. kapitulua

Irakasleen Batzordea

1. atala

Izaera eta eginkizunak

47. artikulua.- Definizioa eta atxikipena

1. Irakasleen Batzordea kide anitzeko organoa da, helburu duena EHUko irakasle-ikertzaileen arloan aholku ematea, proposamenak egitea eta, hala dagokionean, erabakiak hartzea.

2. Irakasleen Batzordea unibertsitateko Gobernu Kontseiluari atxikita dago eta autonomia funtzionalez jardungo du bere eskumenen arloan.

48. artikulua.- Eskumenak

Hauek dira Irakasleen Batzordearen eskumenak:

- a. Errektoreari eta Gobernu Kontseiluari aholku ematea.
- b. Irakasleei eragiten dieten arautegiak onartzeko proposamena egitea Gobernu Kontseiluari, irakasleen legezko ordezkariekin negoziatu ondoren eta kasuan kasuko unibertsitateko egituren parte hartzea bermatuta.
- c. Unibertsitateko irakasleen kidegoetako plazak, lan kontratudun irakasle-ikertzaile iraunkorren plazak eta irakasle laguntzaile doktoreen plazak betetzeko lehiaketak ebatziko dituzten epaimahaietako kideak proposatzea errektoreari.
- d. Irakasle-ikertzaileen arloko premien inguruan unibertsitateko sailek aurkezten dituzten memoriei buruzko iritzia ematea.
- e. Estatutuek, Irakasleen Kudeaketarako Araudiak eta unibertsitateko bestelako arautegiak esleitutako gainerako eskumen guztiak, bai eta Gobernu Kontseiluak emandakoak ere.

2. atala

Batzordearen osaera eta kideen betekizunak

49. artikulua.- Osaera

1. Irakasleen Batzordeko kide izango dira honako hauek:

- a. Errektorea edo, eskuordetzaz, irakasle-ikertzaileen arloan eskumenak dituen errektoreordea. Bera izango da batzordeko burua.
- b. Hamazazpi irakasle-ikertzaile iraunkor.
- c. Irakasle-ikertzaileen arloan eskumena duen zerbitzuko burua (titularra), idazkari teknikoa izango dena; hitza izango du, baina botorik ez.

2. Irakasle-ikertzaile iraunkorren hamazazpi ordezkarietatik, bi errektoreak izendatuko ditu eta beste hamabostak, jakintza adar bakoitzeko hiru, hautatuak izango dira, arautegi honetan ezarritako prozedurari jarraikiz.

50. artikulua.- Irakasle-ikertzaileen ordezkarien betekizunak

1. Batzordeko kide izan ahalko dira EHUn zerbitzu aktiboan dauden irakasle-ikertzaile iraunkorrak, irakaskuntzan eta ikerketan gutxien dela hamar urteko esperientzia badute.

2. Beraz, pertsona bakoitzak irakaskuntzan eta ikerketan egindako lana hartuko da kontuan esperientzia neurtzeko.

3. Esperientzia nahikoa aitortuko zaie gutxienez bi bosturteko edo horren baliokidea egiaztatzen dutenei.

4. Ikerketan esperientzia nahikoa aitortzeko, ikerketako seiurteko bat izan beharko da CNEAIk egiaztatua, edo Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziak egindako pareko ebaluazioren baten bidez lortua, edo Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziak edo pareko agentziaren batek emana; edo, bestela, gaitasunengatik edo arlo akademikoan izandako ibilbidearengatik komunitate zientifikoan itzal handia aitortua daukan curriculumak izan beharko da.



Lehenengo xedapen gehigarria.- Egungo batzorde estatutarioen osaera berritzea
Gaur egun batzorde estatutarioetan taldeek dituzten ordezkariak karguan jarraituko dute agintaldia bukatu eta arautegi honi jarraikiz ordezkari berriak hautatu arte.

Bigarren xedapen gehigarria.- Bitarteko elektronikoen erabilera
Batzorde estatutarioek erakundearen bitarteko elektronikoen erabilera bultzatuko dute deialdiak egitean, bileretan, txostenak egitean, bozketetan, erabakiak hartzean eta agiriak artxibatzean.

Hirugarren xedapen gehigarria.- Kredituak aitortzea batzorde estatutarioetan parte hartzeagatik

1. Batzorde estatutarioetako kide diren irakasle-ikertzaileei kredituak aitortu ahal izango zaizkie jardun akademikoari buruzko arautegian zehaztutakoari jarraikiz.
2. Ikasleen ordezkariak kredituak lortu ahal izango dituzte arloan aplikagarria den araudiari jarraikiz.

Xedapen indargabetzailea.-

Indargabe geratzen dira batzorde hauetako kideak hautatzeko arautegiak: Graduak Batzordea, Graduondoko Batzordea, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordea, Euskara Batzorde eta Irakasleen Batzordea.

Azken xedapenetako lehenengoa.- Arautegia indarrean jartzea

Arautegi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.



ERANSKINA

JAKINTZA ADARRAK

Arautegi honen ondorioetarako, hauek dira jakintza adarrak:

Arteak eta giza zientziak

Zientziak

Osasun Zientziak

Gizarte eta Lege Zientziak

Ingeniaritza eta Arkitektura